



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

USaP  
2024/25

AZTERKETA EREDUA

PAU  
2024/25

MODELO DE EXAMEN



HEZKUNTZA SAILA  
DEPARTAMENTO DE EDUCACION

**EUSKARA ETA  
LITERATURA II**

**LENGUA VASCA Y  
LITERATURA II**

***Ez ahaztu azterketa orrialde guztietan kodea jartzea.***

### **AZTERKETARAKO ARGIBIDEAK**

- Lehenbizi testu bat duzu.
- Testu bakar horren gainean eraikiak daude bi atal (A eta B).
  - A ATALA: IRAKURMENA ETA HIZKUNTZA (5 puntu guztira)
    - Ulermenari buruzko galderak (2 puntu)
    - Gaia eta laburpena (1,5 puntu)
    - Hizkuntza (1,5 puntu)
  - B ATALA: TESTU-EKOIZPENA (5 puntu guztira)
    - Iritzi-artikulua edo dekalogoia (4 puntu)
    - Literatur testua (1 puntu)

Azterketa honetan atal eta azpi-atal guztiak egin behar dira: ez dago hautazko ariketarik.



Universidad del País Vasco  
Euskal Herriko Unibertsitatea

USaP  
2024/25

AZTERKETA EREDUA

PAU  
2024/25

MODELO DE EXAMEN



EUSKARA ETA  
LITERATURA II

LENGUA VASCA Y  
LITERATURA II

## Sare sozialetan egiten ditugun delituak

Sare sozialak egunero erabiltzen ditugu, eta asko; haien bidez, besteekin komunikatzen gara, iritziak trukatzeko ditugu, argazkiak igotzen ditugu, informazioa banatzen dugu; eta, zoritxarrez, liskarrak ugari izaten dira. Jende askok burlak, irainak, kalumniak eta mehatxuak erabiltzen ditu politikariek, futbol-jokalariak, pertsonaia publikoekin edo lagunekin haserretzen direnean. Horiek guztiak delituak dira, bai bizitza fisikoan, bai eta Interneten ere, baina askok uste dute Interneten ez dagoela legerik, nahi dutena egin edo esan dezaketela, eta, sarritan, hilketak mehatxuak ere gertatzen dira. Sare sozialetan horrelako gertaerak eta jokaerak oso zabaldua daudela kontuan izanik, komeni da jakitea ziberjazarpena edo *ziberbullyng*a ere delitua dela. Ziberjazarpena ez dago tipifikatua zigor-kodean, baina ziberjazarpena egiteko erabiltzen diren teknikak edo jokaerak bai.

Delituak dira, esate baterako, aipatuko ditugun hauek: beste norbaitek igo duen argazkia edo esan duena komentatzea pertsona hori iraintzeko edo umiliatzeko; norbait idaztea, berdin dio zenbat urte dituen, jipoituko duzula edo inork ez duela maite esanez; Interneten inkesta bat sortzea norbaiten inguruan beste batzuek pertsona hori buruz gauza itsusiak esateko; norbaiten inguruan gezurrak idaztea; edota, beste norbaiten pasahitza erabiltzea, eta baimenik gabe bere kontu batean sartzea.

Zoritxarrez, jarrera eta ekintza horiek oso zabaldua daude gazte eta ez hain gazte direnen artean. Aipatu behar da horrelako ekintzak gazteek egiten dituztenean gurasoak direla haien jokaeren arduradun, eta norbaitek salatzen baditu, gurasoek ordaindu beharko dutela isuna. Delitua oso larria bada, legeak ezartzen dituen beste zigor batzuk jasan beharko dituzte gazteek: adin txikikoen zentroetan sartu, komunitatearen aldeko lanak egin...

Sare sozialen etorrerarekin, kuxkuxeroek eta jazarleek askoz errazago dute besteen bizitzetan sartzea. Jende askok sortzen ditu profil faltsuak; hori ez da delitua; bai, ordea, beste baten argazkia jartzea guk erabiltzen dugun profil faltsu horretan. Identitatea faltsutzearen delitua oso zabaldua dago, eta isun bidez edo bestelako kastigu baten bidez zigortzen da.

Elkarren artean komunikatzeko, asko erabiltzen dugu WhatsAppa, eta uste baino gehiagotan egiten ditugu delituak tresna horrekin ere. Norbaitek mezu pribatu batean esan diguna hirugarren pertsona bati birbidaltzen badiogu, delitua izango da bidali digun pertsonaren baimenik ez baldin badaukagu. Ezin dugu inor WhatsAppeko talde batean sartu bere baimenik ez baldin badaukagu, bere telefono-zenbakia eta argazkia taldeko beste partaideekin banatzen ariko garela, eta hori ere intimitatearen aurkako delitua delako. Horrez gain, jazarpena egiten ariko gara norbaitek esaten badigu ez dituela gure mezuak jaso nahi eta guk behin eta berriro idazten badiogu.

Tresna guztiak ondo erabiltzen ikasi behar dugu, eta gazteei ondo erabiltzen irakatsi behar diegu. Hori zaintzen ez badugu, helduaroan arazoak izango dituzte, txikitatik uste izan dutelako egokiak direla egokiak ez diren hainbat jarrera.

Julen Linazasoro  
Administrazioa euskaraz aldizkaria (HAEE-IVAP)  
(moldatua)



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

USaP

2024/25

AZTERKETA EREDUA

PAU

2024/25

MODELO DE EXAMEN



HEZKUNTZA SAILA  
DEPARTAMENTO DE EDUCACION

**EUSKARA ETA  
LITERATURA II**

**LENGUA VASCA Y  
LITERATURA II**

## A ATALA: IRAKURMENA ETA HIZKUNTZA (5 PUNTU)

### A.1 ULERMENARI BURUZKO GALDERAK (2 puntu)

Aukeratu erantzun egokiena. Nahikoa da erantzun-orrian zenbakia eta letra adieraztea.

#### 1. Testuaren arabera,...

- Internet bidez egindako jazarpena zigortuta dago.
- bizitza fisikoan baino delitu gehiago dago Interneten.
- Interneten ez dago legerik, eta horregatik erabiltzen dira libreki sare sozialak.
- politikariak, futbol-jokalariak eta pertsonaia publikoak haserretu egiten dira beren argazkiak Interneten agertzen direnean.

#### 2. Idazleak dioenaren arabera,...

- delitua da bakoitzak bere buruaz sare sozialetan gezurrak idaztea.
- delitua da norbaiten pasahitza erabiliz haren baimenarekin kontu korrontean sartzea.
- ez da delitua norbaitek igo duen argazkia komentatzea pertsona hori laidotzeko asmoarekin.
- delitua da norbaiten baimenik gabe haren izenean beste pertsona bati buruz gauza itsusiak idaztea.

#### 3. Testuaren arabera,...

- gazteek ezin dute deliturik egin.
- gurasoek salatu behar dituzte beren seme-alabek egindako delitu larriak.
- gurasoek beren seme-alabek egindako delitu larriengatik zigorrak jasaten dituzte.
- gurasoek beren seme-alabek egindako delitu arinengatik isunak ordaindu beharko dituzte.

#### 4. Idazlearen esanetan,...

- gaur egun WhatsApparekin ez da deliturik egiten.
- jazarpena da pertsona bati mezuak behin eta berriz bidaltzea, pertsona horrek nahi ez badu.
- ez dugu deliturik egiten baimenik gabe pertsona baten mezu pribatuak zabaltzen baditugu.
- WhatsApp taldeak ez dira antolatzen elkarren artean komunikatzeko, delituak egiteko baizik.

#### 5. Testuaren arabera,...

- gazteek tresna hauek ondo eta arduratsu erabiltzen dituzte.
- gazteak zaindu behar ditugu tresna hauek ezagutzen ez dituztelako.
- gazteek ikasi behar dute tresna hauek erabiltzen, aurrerago egoki erabiltzeko.
- gazteek gaur egun tresna hauen erabilera egokia txiki-txikitatik ezagutzen dute.

**EUSKARA ETA  
LITERATURA II**

**LENGUA VASCA Y  
LITERATURA II**

A.2 GAIA ETA LABURPENA (1,5 PUNTU)

Testuingurua

*Lagun artean eztabaidan ari zinetela, beste lagun bat heldu da zuengana: eztabaidagai duzuen testua (“Sare sozialetan egiten ditugun delituak”) ez duela ezagutzen esan dizue, eta zeri buruzkoa den azaltzeko eskatu.*

A.2.1 Adieraz ezazu, zure hitzekin eta esaldi batean, zein den irakurritako testuaren gaia. (0,5 puntu)

A.2.2 Egin ezazu, **labur eta testu josian**, “Sare sozialetan egiten ditugun delituak” izeneko testuaren laburpena (**gehienez 60 hitz**). (1 puntu)

A.3 HIZKUNTZA (1,5 PUNTU)

Testuingurua

*Irakurritako eta eztabaidagai izandako artikulua berebiziko interesa sortu du zuegan, eta zeuk ere gaiari buruz idaztea erabaki duzu; izan ere, zure esperientzia eta ikuspegia beste pertsona batzuentzat lagungarri izan daiteke. Testua ekoizteko prestaketa-lana egin behar duzu; zehazki, baliabide gramatikalak eta lexikoak landu behar dituzu.*

A.3.1 “Sare sozialetan egiten ditugun delituak” testuko ideia batzuk interesgarriak iruditu zaizkizu, baina ez dituzu beren horretan eman nahi: eman itzazu azpiko pasarteak zure hitzak erabiliz. (0,5 puntu)

- “Sare sozialak egunero erabiltzen ditugu, eta asko.”
- “Sare sozialetan horrelako gertaerak eta jokaerak oso zabalduta daudela kontuan izanik, komeni da jakitea ziberjazarpena edo *ziberbullyng*a ere delitua dela.”
- “Jende askok sortzen ditu profil faltsuak; hori ez da delitua; bai, ordea, beste baten argazkia jartzea guk erabiltzen dugun profil faltsu horretan.”
- “Norbaitek mezu pribatu batean esan diguna hirugarren pertsona bati birbidaltzen badiogu, delitua izango da bidali dugun pertsonaren baimenik ez baldin badaukagu.”
- “...helduaroan arazoak izango dituzte, txikitatik uste izan dutelako egokiak direla egokiak ez diren hainbat jarrera.”

A.3.2 Halaber, nahiago duzu “Sare sozialetan egiten ditugun delituak” testuko hitz batzuk ez errepikatu, testua pertsonalagoa egiteko. Horretarako, sinonimoen zerrendatxo bat osatu behar duzu. Eman honako hitz hauen sinonimo bana edo azal ezazu, zure hitzen bidez, hitz bakoitzaren esanahia: (0,5 puntu)

- liskar*
- kuxkuxero*
- jokaera*
- banatu*
- haserretu*



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

USaP

2024/25

AZTERKETA EREDUA

PAU

2024/25

MODELO DE EXAMEN



HEZKUNTZA SAILA  
DEPARTAMENTO DE EDUCACION

**EUSKARA ETA  
LITERATURA II**

**LENGUA VASCA Y  
LITERATURA II**

A.3.3 “Sare sozialetan egiten ditugun delituak” testuan *jazarpena* eremu semantiko jakin bateko ardatza da. Aurkitu testuan eremu semantiko hori osatzen duten beste 5 hitz eta zerrendatu itzazu. Hitzak kategoria gramatikal eta familia lexiko ezberdinetakoak izan daitezke. (0,5 puntu)

## **B ATALA: TESTU-EKOIZPENA (5 PUNTU)**

B.1 Bi aukera hauetako bati erantzun behar diozu (B.1.1 edo B.1.2) (**gutxienez 180 hitz**) (4 puntu)

### B.1.1 IRITZI-ARTIKULUA

*Zure etxean gurasoen eta seme-alaben arteko komunikazioa ez da behar bezalakoa, eta, zure ustez, horren eragile nagusia etxeko gailu elektronikoak dira: eskuko telefonoak, tabletak, Playstationa, eta abar. Ikusten duzu beste etxe askotan antzeko egoera dutela. Egoera hori konpondu nahian, zure herriko aldizkarian iritzi-artikulu bat idaztea bururatu zaizu.*

### B.1.2 DEKALOGOIA

*Sare sozialen erabiltzailea zara eta dituzten abantailak ikusten dituzu, besteak beste jendearen berri izateko edo urrutiko lagunekin harremana gordetzeko baliagarri zaizkizulako. Alabaina, sare sozialen erabilera okerrak ere ikusten dituzu maiz, bai eta halakoek gizartean eragiten dituzten eztabaidak ere. Egoera konpontzeko, sare sozialak egoki erabiltzeko dekalogo bat idaztea bururatu zaizu.*

B.2 Ondoren, zenbait atsotitz dituzu. Hautatu bat, azaldu bere esanahia eta egin lotura esanahi horren eta “Sare sozialetan egiten ditugun delituak” testuaren artean (**gehienez 50 hitz**). (1 puntu)

- Urrutiko intxaurrak hamalau, gerturatu eta lau.*
- Baten zoriona, askoren inbidia.*
- Zenbat buru, hainbat aburu.*

## EUSKARA ETA LITERATURA II / LENGUA VASCA Y LITERATURA II

### A ATALA: IRAKURMENA ETA HIZKUNTZA (guztira 5 puntu)

A atalaren barruan hiru azpi-atal nagusi daude, eta guztiei erantzun behar zaie:

- Ulermenari buruzko galderak (2 puntu)
- Gaia eta laburpena (1,5 puntu)
- Hizkuntzari buruzko galderak (1,5 puntu)

#### A.1 Ulermenari buruzko galderak

Ariketa honen helburua da idatzizko testuen ulermena neurtzea. Horretarako, ikasleek test ereduko galdetegi bati erantzun beharko diote: aukera anitzeko galderak edo egia/gezurra erakoak jasoko dituzte, adibidez. Zuzentzaileari erantzun zuzenak dakartzan txantiloia emango zaio, eta erantzun okerrek ez dute zigorrik izango. Ariketa honek ez dio ikuspegi kompetentzialari jarraitzen; beraz, 2024/2025 ikasturteko deialdiaz geroztik desagertu egingo da ikuspegi kompetentziala duen baten mesedetan. (2 puntu)

#### A.2 Gaia eta laburpena / Gaia eta ideiak

Azpi-atalaren hasieran, testuinguru jakin bat emango zaie ikasleei eta horren arabera erantzun beharko diete hurrengo bi zereginiei. Ariketa hau osorik egin beharko dute ikasleek, hautazko aukerarik gabe; alegia, [gaia + laburpena] edo [gaia + ideiak] izango da aukera bakarra, deialdian deialdiko azterketa-ereduaren arabera.

**A.2.1 Gaia:** testua irakurri ondoren, ikasleek testuaren gai nagusia identifikatu eta beren hitzak erabiliz adierazi beharko dute. Egiturari dagokionez, ontzat emango da bai izen-sintagmak erabiltzea, bai perpaus-egiturak erabiltzea. (0,5 puntu)

##### A.2.2 Laburpena edo ideiak

**a) Laburpena:** ikasleek sintesiak egiteko duten gaitasuna neurtuko da. Sortutako testuak trinkoa, koherentea eta kohesionatua izan behar du, eta ikasleek berek sortu behar dute; hots, ezin dira testuko pasarteak hitzez hitz kopiatu. Laburpena egiteko, estilo zuzena eta zehar estiloa baliatu ahalko dira; beraz, ez da txartzat hartuko “egileak dioenez” edo “egilearen arabera” ereduko egiturak erabiltzea. Gehienez ere 60 hitzeko laburpena onartuko da: hortik gorako hitz eta pasarteak ez dira aintzat hartuko. (1 puntu)

**b) Ideiak:** ideia nagusiak eta bigarren mailakoak bereizteko gaitasuna neurtuko da; funtsean, testuan ageri diren jarrera, ikuspegi eta argudio-ildo garrantzitsuenak bereiztekoa. Ideiak eskema hierarkizatu baten ereduaren arabera aurkeztu beharko dira. Egiturari dagokionez, ontzat emango da bai izen-sintagmak erabiltzea (*Sare sozialetako jazarpena*), bai perpaus-egiturak erabiltzea (*Sare sozialetan jazarpena egiten da*). (1 puntu)

Zuzentasunari dagokionez, ez dira zigortuko ikasleak tarteka egindako akats ortografikoak edo/eta gaizki-ulertuak sortzen dituzten akats gramatikalak, sistematikoak ez badira.

### A.3. Hizkuntzari buruzko galderak (1,5 puntu)

Atalaren hasieran, testuinguru jakin bat emango zaie ikasleei. Halaber, zeregin bakoitzak testuinguru zehatz bat izango du, eta horren arabera erantzun beharko zaie eskakizunei. Atal honetako ariketa guztiak egin behar dira, derrigor: ez dago hautazkorik. Atal honetan zuzenak diren erantzunak bakarrik hartuko dira kontuan.

A.3.1 Ideiak birformulatzeko ariketan, ikasleek beren hitzak erabiliz berridatzi beharko dituzte erantzunak. Beraz, ikasleek bestelako egitura morfosintaktikoak eta bestelako hitzak proposatu beharko dituzte, betiere jatorrizko testuak dakarren esanahia aldatu gabe. Jatorrizko testutik zuzenean hartutako erantzunak ez dira aintzat hartuko. Oinarrizko akats ortografiko eta gramatikalengatik % 20 kenduko da gehienez. **(0,5 puntu)**

A.3.2 Sinonimoak emateko ariketan, hitz polisemiko bat denean (adb. *banatu*), irakurgaiaren duen esanahiari jarraituko zaio. Bestalde, zuzentzaileei balizko sinonimoen zerrenda bat proposatuko zaie, baina ikasleak emandako hitza sinonimo egokia bada, hori ere onartuko da. Sinonimoen ordeztuak hitzaren esanahia azaltzen badute, azalpenak zehatza eta egokia izan beharko du. Oinarrizko akats ortografiko eta gramatikalengatik % 20 kenduko da gehienez. **(0,5 puntu)**

A.3.3 Eredu semantikoei buruzko ariketan, kontzeptu gako bat emango zaie ikasleei, eta horrekin lotutako hitzak bildu beharko dituzte: aurrean 5 hitz dira, baina hitzen kopurua irakurgaiaren arabera aldatuko da. Bestalde, zuzentzaileei esanahi bereko/bertsuko hitzen zerrenda bat emango zaie, baina ikasleek proposatutako beste hitzen bat esanahi berekoa/bertsukoa bada eta irakurgaiaren ageri bada, hori ere onartuko da. Ariketa hau zuzentzean, semantika izango da ardatz; beraz, onartu egingo dira bai kategoria gramatikal ezberdinetako hitzak, bai familia lexiko ezberdinetakoak. **(0,5 puntu)**

Urterik urte, hizkuntzari buruzko galdera-ereduak eta edukiak aldatzeko aukera dago. Azterketa-eredu honetan ideiak birformulatzeko eta semantika lantzen dira batik bat, baina langai izan litezke, halaber, beste esparru linguistiko batzuk, hala nola berridazketak, akats gramatikal eta ortografikoak (adibidez, zuzendu beharreko perpaus akastunen bidez), elementu deiktikoak, aditzen denbora, aspektua eta modua, eratorbidea, testu-antolatzaileen erabilera eta beste, betiere hezkuntza-curriculumak ezarritako edukiekin bat etorritik.

## B ATALA: TESTU-EKOIZPENA (guztira 5 puntu)

B atalak bi azpi-ariketa ditu, eta biak dira nahitaez egitekoak.

- Idazlan luzea (4 puntu)
- Literatur testua (1 puntu)

### B.1 Idazlan luzea (4 puntu)

Ariketa honetan testu-ekoizpen luzea egin behar da. Testuingurua emanda, ikasleei bi testu-tipologia proposatuko zaizkie (urtean urteko azterketa-eredua zein den, testu-tipologia alda daiteke: azalpen-testuak, argudio-testuak, testu akademikoak, sare sozialen esparruko testuak, komunikabideetako testuak...). Horietako bakarra hautatu eta gutxienez 180 hitzeko idazlana egin



beharko dute. Hitz-kopuruari dagokionez, hitzak falta dituzten idazlanei ondoko taularen arabeko puntu-kenketak ezarriko zaizkie.

**Gutxieneko hitz-kopurua: 180 hitz**

Idatzitako hitz-kopurua	169-179	159-168	149-158	≤ 148
Puntuazio-kenketa	-0,5	-1	-1,5	-2,5

Idazlana kalifikatzeko, kontuan hartuko da eskatutakoari zuzen eta egoki erantzun zaion, ikasleek beharrezko informazioa hautatu eta eman duten, testuak kohesioa duen eta ideien arteko koherentzia dagoen, eta erabilitako hizkuntza-baliabideak aberatsak, zehatzak, zuzenak eta egokiak diren. Gainditu ahal izateko, idazlana eskatutakoari lotzen zaiola bermatuko da.

Ekoizpenari dagokionez, testu-tipologia edo -genero bakoitzaren konbentzioak baliatu beharko dira. Esate baterako, iritzi-artikuluetan, izenburua eta egilearen izen-deiturak (betiere fikziozkoak) eman beharko dituzte ikasleek, testua aldizkari edo egunkari batean argitaratuko balitz bezala. Halaber, mezu elektronikoa bat idazteko, hartzailea, gaia eta agurrak idatzi beharko dituzte, dagokien erregistroa erabilita.

Idazlana zuzentzeko erabiliko diren irizpideak

**3-4 puntu**

- ✓ Testua eskatutakoari lotzen zaio eta ondo antolatutako dago.
- ✓ Erabiltzen diren ideia eta argudioak ondo loturik eta garaturik daude.
- ✓ Aukeratu den edukia esanguratsua da gaia garatzeko.
- ✓ Erregistro egokia erabiltzen da, eta lokailu, lexiko eta egitura sintaktiko aberatsak darabiltza.
- ✓ Ortografia eta puntuazioa zuzenak dira.

**2-3 puntu**

- ✓ Testuak ez du ia akatsik; izatekotan, oso akats txikiak dira, inola ere ez sistematikoa.
- ✓ Erabiltzen diren ideia eta argudioak bata besteari loturik eta garaturik daude.
- ✓ Egitura soilekin batera aberatsagoak ere erabiltzen ditu (lokailuak, menderagailuak, etab.)
- ✓ Erregistro egokia erabiltzen du.
- ✓ Ortografia ondo menderatzen du, oro har, tarteka akatsen bat edo beste egin arren.

**1-2 puntu**

- ✓ Idatziak zenbait akats ez sistematikoa du edukian edo forman. Gabeziek, dena den, ez dute ulermena oztokatzen.
- ✓ Egitura soilak baliatzen ditu oro har.
- ✓ Argudio edo ideiak urriak dira, edo ez daude guztiz garatuta edo errepikatu egiten dira.
- ✓ Ideien eta egituren arteko koherentzia- eta kohesio-arazoak dauden arren, ez dute ulermena oztokatzen.

**0-1 puntu**

- ✓ Akatsek ulergaitz egiten dute testua.
- ✓ Egitura soilak erabili arren, horietan ere akatsak daude.
- ✓ Ulergarritasuna oztokatzen duten akatsak daude.



- ✓ Ortografian oinarrizko akats larriak ageri dira, nahiz eta sistematikoak ez izan.

\*Oharra: oinarrizko akastzat joko dira funtsezko osagai eta egitura morfosintaktikoetan egindakoak, eta ulermena oztopatzen dutenak. Adibidez, baina ez bakarrik: izen-sintagmaren esparruan, mugagabeari, ergatiboari, datiboari eta genitiboari dagozkionak; aditz-sintagmaren esparruan, aditz-morfemei eta beren ordenari, aditzen denborari, aspektuari eta moduari, eta komunztadurari dagozkionak; joskeraren eta lexikoaren esparruan, kalko oker nabarmenei dagozkienak. Ortografiaren esparruan, oinarrizko lexikoan eta maiztasun handiko hitzetan egindako akatsak joko dira oinarrizkotzat.

## B.2 Literatur testuen gaineko iruzkinak (1 puntu)

Bigarren azpi-atal honetan literatur testu labur bat edo batzuk emango zaie/zaizkie ikasleei. Urtean urteko azterketa-eredua zein den, askotarikoak izan daitezke testuok: atsotitzak, asmakizunak, bertsoak, poemak, prosaz idatzitako pasarte laburrak, komiki-zatiak... Testua irakurrita, ikasleek bi zeregin izango dituzte. Alde batetik, testua ulertzeko eta interpretatzeko gai direla erakutsi beharko dute, testuak dakarren ideia nagusia azalduta. Beste alde batetik, lotura egin beharko dute literatur testuaren eta irakurgai nagusiaren artean. Bata eta bestea azaltzeko, 50 hitzeko testu laburra ekoitzi beharko dute, gehienez ere.

Ebaluazioari begira, zuzentzaileek aintzat hartuko dute: lehenik, interpretazioa zuzena eta egokia den ala ez; bigarrenik, literatur testuaren eta irakurgai nagusiaren arteko lotura koherentea, egokia eta ondo argudiatua den.

Urterik urte, atal honetako galdera-ereduak eta edukiak aldatzeko aukera dago, azterketan euskal literaturari buruzko gai zabalagoak (autoreak, garaiak, obrak, iruzkinak...) eta nahitaezko irakurgaiak gehitzeko, betiere hezkuntza-curriculumak ezarritako edukiekin bat etorritz. Aldaketa ikasturte bat lehenago iragarriko da, gutxienez.

Zuzentasunari dagokionez, oinarrizko akats ortografiko eta gramatikalengatik % 20 kenduko da gehienez.

## AZTERKETA ZUZENTZEKO TXANTILIOIA

### A ATALA: IRAKURMENA ETA HIZKUNTZA

#### A.1 Ulermenari buruzko galderak (2 puntu)

Erantzun egokiak:

1. a
2. d
3. d
4. b
5. c

#### A.2. Gaia eta laburpena

Gaiari erantzun egokia(k): *Sare sozialen erabilera okerrak dituen arriskuak / Saren sozialen erabilera okerren arriskua / Sare sozialak oker erabiltzeak dakartzan arriskuak.*

*\*Oharra: onartzekoak izango dira bai izen-sintagma baten bidez, bai perpaus osoa eraikita ematen diren erantzunak, betiere gaia zehatz jasotzen badute.*

#### A.3.2 ariketa

- a. *Liskar*: istilu, errieta, iskanbila, zalaparta, astrapala, sesio, kalapita, matraka, ika-mika...
- b. *Kuxkuxero*: begiluze, nontzebarri, ikusmin, marmarti...
- c. *Jokaera*: portaera, jokabide, jokamolde, ibilera...
- d. *Banatu*: hedatu, zabaldu, barreiatu...
- e. *Haserretu*: muturtu, sumindu, gogaitu, samurtu...

*\*Oharra: onartzekoak izango dira bai lema soila, bai hitza deklinatuta ematen duten erantzunak.*

#### A.3.3 ariketa

*Jazarpen*: burla, irain, kalumnia, mehatxu, umiliatu, jipoitu...

*\*Oharra: onartzekoak izango dira bai kategoria gramatikal ezberdinetako hitzak, bai familia lexiko ezberdinetakoak; halaber, onartzekoak izango dira bai lema soila, bai hitza deklinatuta/jokatuta ematen duten erantzunak.*